BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA,

BERGARAKO UDALERRIAN BIDE PUBLIKOAN ORDU-KONTROLPEAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA MUGATZEKO ZERBITZU PUBLIKOAREN KUDEAKETAREN KONTRATAZIOA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ADJUDIKATZEKOA

1. artikulua. XEDEA

Kontratu honen helburua da bide publikoan, ibilgailuak aparkatzeko tokia eta denboraldia zainduz, ordu-kontrolpean ibilgailuen aparkamendua mugatzeko zerbitzu publikoa zeharka kudeatzea.

Zerbitzuaren barruan sartuko da, halaber, bertako biztanleen txartelak egin, berritu eta ematea, betiere Bergarako Udalak unean-unean zehaztuko dituen baldintzetan.

Adjudikazio-hartzaileak, era berean, aparkamendua arautzeko gaur egun Bergarako bide publiko batzuetan jarrita dauden 9 parkimetroen ardura hartu beharko du.

Horrenbestez, xedearen barruan honako hau dago:

- Aparkamendua arautzeko gaur egun Bergarako bide publiko batzuetan jarrita dauden 9 parkimetroen ardura hartzea.
- Zerbitzuaren kudeaketa, hau da, Bergarako bide publiko zehatz batzuetan ibilgailuen aparkamendua kontrolatu, mugatu eta arautzea, eta ibilgailuak aparkatzeko tokia eta denboraldia zaintzea udalak adierazitako egutegi eta ordutegiaren barruan.
- Tiket-makinak mantendu, programatu eta martxan jartzea, eta era berean, aparkatutako ibilgailuen aparkaldia (denbora) kontrolatzea, betiere behar bezala baimendutako eta erraz identifikatzeko moduko uniformeaz jantzitako zaindari bitartez.
- Zaindari horiek, lan-arloan, zerbitzuaren adjudikazioa hartu duen enpresaren ardura izango dira eta hori guztia lizitazioa arautzen duten pleguetan jasotako zehaztapen eta baldintza guztiak betez.

2. artikulua. EZARTZE-EREMUAK, PREZIOAK

Bergaran, TAO ezartzeko eremuak erantsitako planoan zehaztutakoak dira. Lau eremu daude:

- **1. eremua**, errotazio arrunta duena, gehienez ere 3 orduko mugarekin, Oxirondo plazaren gunea izanik.

- **2. eremua**, errotazio oso altua duena, gehienez ere 30 minutuko mugarekin, San Martin plazako gunea izanik.

- **3. eremua**, errotazio arrunta duena, gehienez ere 3 orduko mugarekin, Ibargarai 3an dagoen lurrazpiko parking publikoko aparkalekuak.

- **4. eremua**, errotazio altua duena, gehienez ere 1,5 orduko mugarekin: Ibargarai (1-2-4-6-8-10-12-14), Zurradero, Telesforo Aranzadi, Joan XXIII.a plaza, Fraiskozuri, Herrilagunak, Irizar, Irala eta Kruz Gallastegi kaleak eta Bideberriko aparkalekuak.

ESKU67121264-7297-407b-b7d9-62c7ee4d8cb0

Bergarako Udalak eremuen banaketa, denborak eta prezioak aldatu ahal izango ditu.

TAO eremuetan —Oxirondo plaza eta Ibargarai 3ko lurrazpiko parkingean izan ezik— udal ordenantzan jasotako baldintzak betetzen dituzten bertakoek eta jarduerara atxikitako autoek dituzten merkatariek doan aparkatu ahal izango dute eta denbora-mugarik gabe, ordenantzak ezarritako baldintzetan.

3. artikulua. EZARTZEKO EPEAK

Egun dauden tiket-makinak beste toki batzuetara mugitzea adjudikazio-hartzaileak egingo du, udalak horrela eskatzen badio, eta horiek ezartzeko gehienezko epea hilabetekoa izango da jakinarazten den egunetik kontatzen hasita.

4. artikulua. ZERBITZUAREN UDAL ZUZENDARITZA

Zerbitzuaren zuzendaritza, zaintza eta kontrola Bergarako Udalak horretarako izendatuko dituen teknikariek egingo dute, Udaltzaingoko burua edo buruordekoa izanik.

5. artikulua. ENPRESAREN ORDEZKARIA

Behin zerbitzua adjudikatu ondoren, adjudikazio-hartzaileak pertsona bat izendatuko du egin beharreko lanen eta zerbitzu-kudeaketaren zuzendari izateko, eta hori izango da udalaren aurrean enpresaren ordezkaria.

6. artikulua. LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA

Enpresa esleipendunak bete egin behar ditu Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legeak eta enpresa-jardueren koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuak ezarritako betebeharrak. Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legeari jarraiki, prebentzioaren arloko betetze agiri hauek aurkeztu beharko dira:

Eskaintza onuragarriena aitortu eta 10 egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Baldintza Administratibo Zehatzen Agirietako 12.5 atalean zerrendatutako dokumentuekin batera, VI.Eranskina eta harekin lotutako dokumentazioa: prebentzio antolaketa ereduaren ziurtagiria, laneko arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jardueren plangintza.

Prebentzio antolaketa ereduaren inguruan, ziurtagiriak adierazi beharko du kanpoko prebentzio zerbitzua, propioa edo mankomunatua duen lau espezialitatetan: Laneko Segurtasuna, Higiene Industriala, Ergonomia eta Psikosoziologia eta Osasunaren Zaintza.

Kontratua sinatu eta zerbitzua ematen hasi aurretik:

- Bergarako Udalarentzat lan egingo duten langileen zerrenda (NAN, izen-abizenak eta kalifikazio profesionala).
- Bergarako Udalerako lan egingo duten langile bakoitzari Norbera Babesteko Ekipamendua entregatu izanaren egiaztagiriak.

ESKU67121264-7297-407b-b7d9-62c7ee4d8cb0

- Langileen prestakuntza- eta informazio-ziurtagiriak. (Bere lanpostuari buruz, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 18. eta 19. artikuluak).
- Esku hartzen duten langileen gaitasun medikoaren ziurtagiria. Lantoki horretan bereziki sentikorrak diren langileen zerrenda jaso beharko du, eta, beharrezkoa izanez gero, hartu beharreko babes- edo prebentzio-neurriak adierazi beharko ditu.
- Kontratatutako enpresako langileek Bergarako Udalaren lantokian egingo dituzten jardueren lan-arriskuak eta prebentzio-neurriak eta emergentzia neurriak ulertzearen erregistroa. Lan arriskuak identifikatu eta prebentzio zein emergentzia neurriak zehazterakoan bereziki hartuko da kontuan Bergarako Udaleko edo bertan parte hartzen duten beste enpresa batzuetan izan ditzaketen eraginak. Aldez aurretik, Bergarako Udalak adjudikaziodunari bidaliko dizkio arriskuak ebaluatzeko agiria eta zentroko larrialdi-neurriak.

Jarduera hasi ondoren eta gauzatzen den bitartean, honako betebeharrak izango ditu esleipendunak:

- Bergarako Udalak prebentzioaren arloan emandako jarraibideak betetzea.
- Bergarako Udaletik jasotako informazioa eta jarraibideak langileei helaraztea.
- Zentroko langileekin lankidetzan aritzea prebentzio-lanetan eta, bereziki, larrialdietan.
- Prebentzio-arloan garrantzitsua den edozein aldaketa jakinaraztea jardueran zehar.
- Bergarako Udalari jakinaraztea kontratatutako zerbitzua gauzatzean langileen artean gertatzen diren istripu guztiak, baldin eta jarduera konkurrenteen ondoriozko arriskuen ondorioz gertatzen badira, bai eta jabetzari eragindako kalteak ere.
- Lantokian dauden langileen segurtasunari eta osasunari eragin diezaiekeen edozein larrialdi-egoeraren berri berehala ematea.
- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzen laguntzen duen beste edozein jarduera.

Udalak aukera izango du, kontratuaren **exekuzioan edozein unetan**, adjudikazio-hartzaileari arestian aipatutako egiaztagiriak eskatzeko. Adjudikazio-hartzaileak dokumentazioa aurkezteko **10 eguneko** epea izango du –eskaera jaso eta hurrengo egun baliodunetik kontatzen hasita–.

7. artikulua. ARAUTZEKO NEURRIAK

Kontrolpeko aparkamendua arautzeko Bergarako Udalak hartuko dituen neurriak ordenantzak ezarriko ditu. Honako neurri hauek hartuko dira:

a. Parkimetroan matrikula derrigor sartu beharko da, ibilgailua araututako eremuetan aparkatu ahal izateko.

b. Aparkaldiaren gehieneko iraupena TAOren ordenantzan ezarritakoa izango da.

Halaber, nahiz eta udal ordenantzan jasota ez egon, udalak egoki ikusten badu beste hainbat neurri edo informazio osagarri jartzeko eskatu ahalko dio, bai parkimetroaren pantailan bertan, bai tiketean jasotako informazioan.

ESKU67121264-7297-407b-b7d9-62c7ee4d8cb0

8. artikulua. OBRA OSAGARRIAK ETA SEINALEZTAPENA

Behar bezala seinaleztatuta egon beharko dira Euskal Autonomia Elkarteko bi hizkuntza ofizialetan honako hauek (euskarari lehentasuna emanez):

- Gune arauturako sarbideak.
- Tiket-makinak non dauden.
- Makinak aurkitzeko beharrezko seinale osagarriak.

Adjudikazio-hartzailearen ardura izango dira seinale bertikalen eta horizontalen (lurreko seinalizazioa) egokitasuna eta mantentze-lanak, hau da, zerbitzu on bat emateko beharrezkoa den seinalizazioa behar bezala mantentzea eta egoera onean iraunaraztea.

9. artikulua. GIZA BALIABIDEAK

Zerbitzuaren adjudikazio-hartzaileak bere betebeharrak betetzeko beharrezko diren langileak kontratatuta izan beharko ditu. Langile horien arduradun bakarra adjudikazio-hartzailea izango da. Hori dela eta, adjudikazio-hartzaileak nagusiaren eskubide eta betebehar guztiak izango ditu eta lan arloan, Gizarte Segurantzan eta laneko segurtasun eta higiene arloan indarrean dauden xedapen guztiak bete beharko ditu bere menpeko langileekiko.

Langile horiek zerbitzuaren erabiltzaileen informazio-eskaerei modu egokian eta EAEko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan erantzuteko hizkuntza-gaitasuna izango dute. Eta Udalak Euskararen Erabilera Bultzatzeko onartuta daukan Planean jasota dagoen moduan, enpresako langileek ere euskarari lehentasuna emango diote ahozko zein idatzizko harremanetan, hartzaileen hizkuntza eskubideak errespetatuz.

Zaindariak behar bezala identifikatuta eta uniformez jantzita joan beharko dira.

Lanak egiten ari direla langileei istripu edo bestelako edozein kalte gertatuz gero adjudikazio-hartzaileak indarrean dauden arauetan ezarritakoa beteko du bere erantzukizunpean eta Bergarako Udalak ez du inolako erantzukizunik izango.

Bergarako Udalak betebehar horiek betetzen direla egiaztatzea eskatu ahal izango du edozein unetan eta egokien irizten dion eran.

Kontratua amaitzean Udalak ez du adjudikazio-hartzaileak kontratatu edo haren zerbitzuan izan den inolako langileren erantzukizunik hartuko.

10. artikulua. BALIABIDE MATERIALAK

Lizitatzaileek zerbitzua kudeatzeko beharrezkotzat jotzen dituzten baliabide materialak zehaztasunez deskribatu beharko dituzte eskaintzarekin batera aurkeztuko duten memoria teknikoan.

Ordenagailu pertsonalak, eta beste ekipo informatiko edo ofimatiko batzuk, hala nola inprimagailuak, fotokopiagailuak eta abar, beharrezkoak ezarritako jarduerak egiteko, enpresa

ESKU67121264-7297-407b-b7d9-62c7ee4d8cb0

kontratistak hornitu beharko ditu, egoki eta beharrezkotzat jotzen dituen ezaugarriekin eta kopuruarekin.

Era berean, enpresa adjudikaziodunak prest eduki beharko ditu bere zeregin guztiak exekutatzeko beharrezkoak diren baliabide informatiko guztiak, hala nola hari gabeko konexioak eta informazioa batetik bestera mugitzeko sistemak noranzko bietan.

Enpresa adjudikaziodunak bere langileen prestakuntzaz arduratuko da, erabili behar dituzten programa informatikoetan.

Enpresa adjudikaziodunak software propioa erabili beharko du, zerbitzua behar bezala emateko baldintza tekniko eta formalak beteko dituena, eta uneoro egokituta egon beharko dena indarrean dauden legezko xedapenetara.

Enpresa adjudikaziodunak beharrezkoak diren baliabide teknikoak eduki beharko ditu INTERNETera edo etorkizuneko teknologietara konektatzeko eta sartzeko.

←

11. artikulua. TIKET MAKINAK

Bederatzi (9) tiket-makina daude jarrita bide publikoetan eta horiek Bergarako Udalaren jabetzakoak dira. Horien ezaugarriak Baldintza Agiri Tekniko hauetan zein Kontratatzailearen profilean argitaratutako fitxa teknikoetan daude ikusgai. Lizitatzaileak, aurkezte hutsarekin, horien ezaugarriak onartu eta tiket makinak mantentzeko gaitasuna adierazten du.

Gaur egungo tiket makinek dituzten ezaugarriak kontutan izanda horien funtzionamendua une oro bermatzea adjudikazio-hartzailearen ardura izango da.

Tiket-makinek gutxieneko baldintza hauek izan beharko dituzte:

- Euskal Herriko irisgarritasun-legea beteko dute.
- Tiket-makinak kudeatzeko sistema zentralizatuta egongo da.

Bete beharko dituzten **oinarrizko ezaugarriak** honako hauek izango dira:

1. Sistema zentralizatzea

Unitate Zentral bat egongo da makina guztiekin lotuta. Unitate Zentral horrek egiten ari diren mugimendu guztiak bilduko ditu denbora errealean: tiketak ateratzeak isunak ezeztatzeak, matxurak…

Horrek eskatzen dituen mantentze lanak izango dira egin beharrekoak.

2. Oinarrizko ezaugarriak

a. Tiket-makinak irrati bidezko komunikazio-sistema bat du (GPRS…) unitate zentralarekin lotzeko, zaintza eta kontroleko langile zaindarien elementu eramangarriekin lotzeko.

b. Unitate Zentralak makina guztien kudeaketa eta mantentze-egoera kontrolatuko du (sartutako matrikulak, isunen ordainketa, hasierako ordua, egondako denbora…) eta baita aparkamendu-sistema osoaren kudeaketa ere.

c. Erabiltzaileak matrikula sartuko du parkimetroan eta sistemak tiket bat emango dio. Tiketean jasota agertuko dira ibilgailuaren datuak eta aparkaldiaren hasierako eta amaierako orduak. Tiketa ibilgailuaren barruan jarriko da, kanpotik erraz ikusteko moduan.

ESKU67121264-7297-407b-b7d9-62c7ee4d8cb0

d. Unitate zentralak bere memorian gordeko ditu aparkatutako ibilgailuen matrikula guztiak, eta horren bidez automatikoki ezingo da bigarren aldiz matrikula bera sartu gune berean aparkatzeko, behinik behin TAO guneak arautzeko ordenantzak zehazten duen denbora igaro arte.

e. Zaintza eta kontroleko langile zaindariek, ibilgailuak egoki aparkatuta daudela egiaztatzeko, ibilgailuen matrikula euren ekipo eramangarrietan sartu eta kontrolgunean edo tiket-makinan galdetuko dute, edo bestela lizitatzaileak eskaintzan zehaztutako beste antzeko sistemaren bat erabiliko dute, baina betiere zentralizatutako sistema erabilita.

3. Mantentzeko baldintzak

Mantendu eta kontserbatzeko modu arin eta erraza ziurtatzeko aparailuek honako baldintzak dituzte:

a. Tiket-banatzailea osorik moduluka eginda dagoenez erraz eta azkar mantendu ahal izango da, elementuren bat ez badabil hori ordezkatu ahal izango baita.

b. Ohiko mantentze-lan bakarra tiketen papera aldatzea izango da. Paper-biribilki bakoitzak gutxienez 3000 tiket izango ditu, eta argi-lekuko batek abisatuko du 300/500era iritsitakoan.

c. Tiketen papera amaitzean, aparailua zerbitzuz kanpo jarriko da eta, kasuan kasu, txanpon-sarrera itxiko da. Gertatutakoaren berri denbora errealean izango dute Kontrol Zentroan, ahalik eta azkarren egoera zein den jakin ahal izateko.

d. Parkimetroaren eta tiket-emailearen (kutxa gotorraren) arteko lotura une oro zehaztuta egongo da.

e. Matxurak gehienez ere hiru ordutan konponduta egongo dira.

f. Akatsa duten makinak identifikatzen, lekukoek lagunduko diete mantentze-lanetako langileei.

g. Tiket-makinan kontrol-fitxa bat edo txartel magnetiko bat sartuz gero, test-tiket bat inprimatuko du, makinak erabiltzen ari den kode lehenetsiak azalduko dituena. Fitxa ez da bilketan zenbatuko eta itzuli egingo da.

Makinen funtzionamendua nola doan zentralizatze-sistemari esker eta alarmak kontrolera iritsitakoan jakin ahal izango da.

4. Bide publikoan instalatzeko baldintzak

Martxan jartzeko obrak, lanak eta loturak adjudikazio-hartzailearen kontura egingo dira, kokapena aldatzea erabakiko balu Udalak.

Edonola, instalazio-puntuen errematek udal zerbitzu teknikoek emandako jarraibideen arabera egin beharko dira.

5. Autonomia

Parkimetroak unitate zentralarekiko lotura galtzen badu, modu lokalean lan egingo du, datu orokorren basearen erreferentziarik gabe.

6. Ordutegiak

a. Udalak ezarritako ordutegiak aplikatuko dira. Makinak prestatuta egongo dira aldaketa horiek erraz egiteko, ordenagailuaren memorian eraginda.

ESKU67121264-7297-407b-b7d9-62c7ee4d8cb0

b. Kokalekuen arabera tarifa eta egonaldi ezberdinak aplikatu beharko zaizkie.

7. Auto-babesa eta matxura-deia

Makinak auto-babeserako eta matxura-deiak egiteko elementu batzuk izango ditu berehala jakiteko makina horiek non dauden. Mekanismo horien artean hauek daude:

- Txanponak onartzeko zuloa automatikoki itxiko da objektu ezezagunak antzematean.
- Bisorean agertuko diren zenbaki-kodeen bidez matxurak antzemateko lekuko digitala izango dute.
- Abisu optikoa paper-erreserban 300/500 tiket bakarrik gelditzen direnean.

12. artikulua. DIRU-BILKETA

Adjudikazio-hartzaileak hilero udalaren eskura jarriko du diru-bilketa Udalak horretarako izendatuko duen kontu korrontean.

Bildutako kopuruak zuritu egin beharko dira hileko txostenaren bidez, emandako ticketekin, kobratutako zigorrekin eta abarrekin bat datozela egiaztatzeko. Bildutako diru kopuruak Udalaren oniritzia jaso beharko du.

Jasotako diruaz desadostasunak sortuz gero eman beharreko diru-kopurua zehaztu ahal izateko kontraesaneko txostenak egingo dira eta, beharrezkoa balitz, bildutako diru-kopurua zehazteko espediente administratiboa irekiko da.

13. artikulua. PRESTAZIOA

Adjudikazio-hartzaileak Baldintza Administratiboen Pleguak eta plegu honek ezarritako baldintzetan edo Udalak ondoren aldatutakoetan emango du zerbitzua, eta ezingo dio kontratua beste pertsona bati laga, ez zati batean ez osorik, udalbatzaren berariazko baimenik gabe.

14. artikulua. IKUSKARITZA ETA KONTROLA

Lanak era egokian egiten ari direla eta zerbitzuaren funtzionamendua zuzena dela ikuskatzeko eta kontrolatzeko ahalmena Udalak du eta une oro gauzatu dezake.

Udalak kontrolatu egingo ditu bai instalazioen egoera, bai esleitutako lanak zuzen garatzen ari direla. Horrenbestez, beharrezkoa balitz, honakoak proposatu ahal izango ditu: zuzenketak eginarazi eta horietarako epeak proposatzea, edo kontratuaren plegu hauek ez betetzearren espedientea irekitzea proposatzea.

15. artikulua. BESTELAKO BALDINTZAK

Kontratu hau gauzatzeko, adjudikazio-hartzaileak gutxienez, arestian zzehaztutako baldintzak betetzeaz gain, honako exekuzio-baldintzak ere beteko ditu:

ESKU67121264-7297-407b-b7d9-62c7ee4d8cb0

a) Instalazioak eta bertako materialak mantentzea, birjartzea eta konpontzea; eta ondorioz, gailuek edo bertako piezaren batek gaizki funtzionatuko balute, berehala aldatu edo konpontzea.

b) Behar diren erreminta eta ordezko materialak izatea, zerbitzua atzerapenik gabe bideratzeko. Horretarako, parkimetroen fitxa teknikoa hartu beharko da kontuan.

c) Arduradun bat izendatzea, udalak eskatutakoan aurkezteko obligazioa izango duena.

d) Zerbitzuaren inguruko harremanetarako beharrezkoa den bitartekariarekin harremanetan jartzeko telefonoa, fax-a eta e-maila ematea udalari.

e) Ibilgailuen aparkamenduaren ordu-kontrolerako makinek egoki funtzionatzeko ardura hartzea, dagokien bide-gunean.

f) Diru-bilketa kudeatzea, makinetako txanponak eta sarrerak zenbatuz.

g) Seinaleztatze horizontala eta bertikala bideratzea aparkaldi-eremuetan, eta seinaleak zein lurreko pintura-marrak mantentzea. Aparkalekuetako marra urdinak osorik margotuko dira gutxienez kontratua sinatzen denetik kontatzen hasita bi hilabeteen barruan, eta hortik aurrera urtero, kontratua luzatu eta bi hilabeteko epean.

h) Lortutako emaitzen jarraipena egitea eta hilero honi buruzko txostenak egitea, udalari jakinarazteko eta hobekuntzak proposatzeko. Gutxienez euskaraz edo elebitan egon beharko da.

i) TAO guneko ibilgailuen aparkaldiak kontrolatzea, adjudikazio-hartzaileak kontrataturiko pertsonen bidez. Langileok ez dute izango inolako kontratu edo lan-harremanik udalarekin, eta adjudikazio-hartzailea arduratuko da langileak ordezkatzeaz oporraldi, gaixoaldi eta abarretan. Langileen gastu guztiak ordaintzea, soldata eta Gizarte Segurantzaren kotizazioa barne, eta baita gastu orokorrak eta zergak ere.

j) TAOren arau-hauste guztietan salaketak jartzea, beti baliodun izateko eran.

k) Urtean zehar zerbitzua ematea astelehenetik ostiralera 9:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 21:00etara eta larunbatetan 9:00etatik 13:30era (jaiegunetan izan ezik).

Abuztuan ez da zerbitzurik emango.

l) Txartelik ez duten edo denbora gainditu duten ibilgailuak salatuko ditu begiraleak, eta aparkatzearekin zerikusia duten bestelako salaketak egingo ditu.

m) Zaintzaileak beharrezko elementuak izango ditu eskura; hala nola, enpresarekin identifikatuko duen uniformea (“TAO Zerbitzua” testua izango du goiko arropetan –poloa, parka, polarra…– bizkarrean eta aurrealdean eskuinaldean), salaketen terminala, inprimagailua, sakelako telefonoa… Eta horiek guztiak adjudikazio-hartzaileak emango dizkio bere kontura.

n) Langileak portaera egokia izango du erabiltzaileekin eta Bergarako Udalak hizkuntza-normalizaziori dagokionez finkatutako arau eta irizpideen arabera jokatuko du, bai herritarrekiko harremanetan, bai udaleko zerbitzuekikoetan ere. Hori dela-eta, zerbitzua emango duen langileak B-2 mailaren pareko euskarazko hizkuntza-gaitasuna duela egiaztatu beharko du, dagokion ziurtagiriak aurkeztuz edo Udaleko Euskara Zerbitzuak jarritako frogaren bitartez.

ESKU67121264-7297-407b-b7d9-62c7ee4d8cb0

Behin zerbitzua exekutatzen egonda, pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere euskara-gaitasuna egiaztatu beharko dute, aipatutako bi bideetako bat erabilita. Aipatu prozesu bera jarraitu eta gaitasuna egiaztatzen ez bada, Udalak kontratua suntsitu ahal izango du. Hori gertatuz gero, adjudikazio-hartzaileak ez du izango kalte-ordainik erreklamatzeko eskubiderik izango eta gainera galdu egingo du ezarritako behin betiko fidantza.

o) Guztiz debekatuta dago kontratuan jasotako zerbitzu-prestazioak hirugarrenei alokatu, laga edo eskualdatzea, udalak idatziz baimentzen ez badu behintzat.

p) Adjudikazio-hartzaileak lan arloko, fiskalitateko, Gizarte Segurantzako eta laneko arriskuen prebentziorako xedapenak beteko ditu.

q) Udalak ezarritako baldintzak beteko dira kontratua burutzean.

r) Adjudikazio-hartzaileak bere kontura erosiko du zerbitzua emateko beharrezko material guztia.

s) Bestelako tasa, gastu edo zerga guztiak adjudikazio-hartzailearen kontura izango dira.

Beste betebehar batzuk:

a) Zerbitzuak emateko beharrezkoak diren langileak kontratatzea. Kontratatutako langileen kontratuen eta Gizarte Segurantzan alta eman izanaren agirien kopiak aurkeztu beharko dira, kontratatzen diren egunetik kontatzen hasita gehienez ere 10 eguneko epean.

   Langile horren arduradun bakarra adjudikazio-hartzailea izango da. Hori dela eta, adjudikazio-hartzaileak nagusiaren eskubide eta betebehar guztiak izango ditu eta lan arloan, Gizarte Segurantzan eta laneko segurtasun eta higiene arloan indarrean dauden xedapen guztiak bete beharko ditu bere menpeko langileriarekin.

b) Bergarako Udalak edozein momentutan eska diezaioke betebehar horiek betetzen dituela egiaztatzea.

c) Zerbitzuak emateko beharrezkoak diren langile kualifikatuak kontratatzea. Kontratatutako langileen kontratuen kopiak eta Gizarte Segurantzan alta eman izanaren agirien kopiak aurkeztu beharko dira gehienez ere 10 eguneko epean –kontratatzen diren egunetik kontatzen hasita–.

d) Udal honekiko betebeharretan egunean egotea.

e) Zerbitzua emateko behar den diziplina mantentzea.

f) Zerbitzu hauek eskaintzerakoan udalari edo besteri sortutako kalte eta galerak ordaintzea. Horretarako, sor litezkeen edo zerbitzua eskaintzeak ekar ditzakeen kalteak estaltzeko erantzukizun zibileko poliza bat izenpetu beharko du, gutxienez 150.000,00 euroko kapitalaz.

g) Baldintza teknikoen pleguetan jasotakoak.

Kontratua kontratistaren arriskuz eta menturaz gauzatuko da.

ESKU67121264-7297-407b-b7d9-62c7ee4d8cb0

Udalak edozein unetan ikuskatu ahal izango du zerbitzua, eta kontratua betetzen dela egiaztatzeko edozein agiri eskatu ahal izango du, eta adjudikazio-hartzaileak hiru eguneko epean aurkeztu beharko du.

Kontratudunaren ardurapekoak izango dira kontratua gauzatzean sor litzakeen kalte eta galerak.

Kontratua plegu honetan eta plegu teknikoan jasotzen diren baldintzei lotuta bideratuko da eta baita, hala badagokio, espedienteari loturiko zehaztapen teknikoei lotuta ere, Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean, zeinak eskumen horiek gauzatuko baititu ahoz zein idatziz.

Kontratistari edo honi loturiko pertsonei egotzi dakizkiekeen ekintza edo akatsengatik kontratuaren martxa egokia zalantzatan jartzen bada, Administrazioak beharrezko neurriak hartzea agindu ahal izango du, zerbitzu-ematea oneratzeko.

16. artikulua. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Datu pertsonalen tratamendutzat hartuko dira eragiketa eta prozedura tekniko automatizatuak edo ez automatizatuak, aukera ematen dutenak datuak jaso, grabatu, kontserbatu, prestatu, aldatu, blokeatu eta deuseztatzeko, baita datu konexioak ere, sortzen direnak komunikazioetan, kontsultetan, interkonexioetan eta transferentzietan, pertsona fisiko identifikatuei edo identifikagarriei buruz edozein informaziori eragiten badiote. Kontratu hau exekutatzeko, kontratistak datu pertsonalak tratatu behar dituenez, Kontratua exekutatzean jarraituko zaio datuak babesteari buruz Estatuko eta Europako Batasuneko araudian xedatutakoari.

-Adjudikaziodunak tratamenduaren arduradunaren jarraibideen arabera bakarrik tratatuko ditu datuak.

-Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak bakar-bakarrik erabiliko dira kontratuaren xedea betetzeko, eta ezin izango dira erabili beste xede baterako.

-Enpresa adjudikazioduna eta kontratuaren xede den prestazioan esku hartzen duten langile guztiak behartuta daude sekretu betebeharraren eraginez. Betebehar horrek iraungo du kontratu amaitu eta gero ere bai, bete egin delako edo suntsiarazi egin delako.

-Enpresa adjudikaziodunak konpromiso hartzen du datuak babesteari buruz eta Segurtasunaren Eskema Nazionalean eskatutako neurri teknikoak, administratiboak eta antolaketakoak hartzeko.

DILIGENTZIA: Jasota gera dadila Bergarako udalerrian bide publikoan ordu-kontrolpean ibilgailuen aparkamendua mugatzeko zerbitzu publikoa kontratatzeko Baldintzen Agiri Tekniko hau 2023ko maiatzaren 15ean emandako dekretuz onartutakoa dela.

Bergaran, sinadura elektronikoaren datan

IDAZKARIA

ESKU67121264-7297-407b-b7d9-62c7ee4d8cb0

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS

PARA LA CONTRATACIÓN MEDIANTE PROCEDIMIENTO ABIERTO DE LA GESTIÓN DEL SERVICIO PÚBLICO DE ESTACIONAMIENTO LIMITADO DE VEHÍCULOS EN LA VÍA PÚBLICA BAJO CONTROL HORARIO EN EL MUNICIPIO DE BERGARA

Artículo 1. OBJETO

El objeto del contrato es el de la gestión indirecta del servicio público de estacionamiento limitado y controlado de vehículos en la vía pública bajo control horario, con vigilancia de la estancia y el tiempo de permanencia.

Dicho servicio comprenderá así mismo la expedición, renovación y entrega a las personas o entidades titulares de las tarjetas de residentes en las condiciones que el Ayuntamiento de Bergara determine en cada momento.

Así mismo la adjudicataria deberá hacerse cargo de los 9 parquímetros de regulación de estacionamiento instalados actualmente en determinadas vías públicas de Bergara.

A tales efectos, dentro del objeto se incluye:

- Hacerse cargo de los 9 parquímetros de regulación de estacionamiento instalados actualmente en determinadas vías públicas de Bergara.
- La gestión del servicio consistente en el control, delimitación y ordenación del estacionamiento de vehículos en determinadas vías públicas de Bergara, vigilancia de la estancia de vehículos, así como su tiempo de permanencia, dentro del calendario y horario establecidos por el ayuntamiento.
- El mantenimiento, programación y puesta en servicio de los expendedores de tickets, así como el control del tiempo de estacionamiento de los vehículos estacionados, mediante personal de vigilancia debidamente autorizado y uniformado para su más fácil identificación.
- Dicho personal de vigilancia dependerá laboralmente de la empresa adjudicataria del servicio, todo ello en los términos y condiciones recogidos en el pliego que rige la licitación.

Artículo 2. ZONAS DE IMPLANTACIÓN, PRECIOS

En Bergara, las zonas de implantación de OTA serán las indicadas en el plano adjunto. Existen cuatro zonas:

- **La zona 1,** de rotación normal, con una limitación horaria máxima de 3 horas, y que comprende la zona de Oxirondo plaza**.**

- **La zona 2,** de rotación muy alta, con una limitación horaria máxima de 30 minutos, y que comprende la zona de San Martin plaza**.**

- **La zona 3,** de rotación normal, con una limitación horaria máxima de 3 horas, y que comprende el parking subterráneo de Ibargarai 3.

ESKU67121264-7297-407b-b7d9-62c7ee4d8cb0

- **La zona 4,** de rotación alta, con una limitación horaria máxima de 1,5 horas, que comprende las calles Ibargarai (1-2-4-6-8-10-12-14), Zurradero, Telesforo Aranzadi, Joan XXIII.a plaza, Fraiskozuri, Herrilagunak, Irizar, Irala y Kruz Gallastegi y los aparcamientos de Bideberri.

La distribución de zonas, tiempos y precios podrá ser modificada por el Ayuntamiento de Bergara.

En las zonas de OTA –excepto en Oxirondo plaza y parking subterráneo de Ibargarai 3– las personas residentes y comerciantes que tengan el vehículo adscrito a su actividad y que cumplan los requisitos recogidos en la ordenanza municipal podrán aparcar gratuitamente y sin limitación de tiempo, en las condiciones establecidas en la ordenanza.

Artículo 3. PLAZOS DE IMPLANTACIÓN

La adjudicataria, cuando así se lo requiera el ayuntamiento, deberá trasladar los actuales expendedores de tickets a nuevas ubicaciones, estableciéndose para ello un plazo máximo de implantación de un mes a partir de la fecha de comunicación.

Artículo 4. DIRECCIÓN MUNICIPAL DEL SERVICIO

La dirección, vigilancia y control del servicio estarán encomendadas al personal técnico designado a tal efecto por el Ayuntamiento de Bergara, que será el jefe de la Policía Municipal o el adjunto a dicha jefatura.

Artículo 5. REPRESENTANTE DE LA EMPRESA

